

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udal Etxebizitzak TEA**

2021. urteko LEPari dagokion ezohiko egonkortze (lehiaketa) sistemaren bitartez Arkitekto Teknikoaren lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesuan behin betiko onartu eta baztertutako hautagaiak.

Bilboko Udal Etxebizitzak TEA-ko Presidenteak, ezohiko egonkortze-prozesuak arautu behar dituzten oinarri orokorrak Bilboko Udal Etxebizitzak TEA-n plantillako langile finkoen lanpostuak betetzeko seigarren oinarriko 2. atalean (2022ko azaroaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 212. zenbaki.) ematen zaizkion eskumenak erabiliz, eta 2023ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez, honako hau adierazten du:

Lehenengoa: Amaitu da ezohiko egonkortze sistemaren bidez Arkitekto Tekniko-rako lanpostu 1 betetzeko deitutako hautaketa-prozesuan eskabideak aurkezteko epea. Lanpostu horrek euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna du, eta 2. lanbide-sailkapena (A taldea-A2 azpitaldea). Ondorioz, onetsi egiten da hautaketa-prozesu horretan onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda hau:

ONARTUTAKOEN ZERRENDA

NAN/AIZ	Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Izena
***8*154	ARANTXA	ARANO	SUDUPE
***4*299	JANIRE	ELORDI	LOYOLA
*455*3**	LANDER	IRAZOKI	CUÑADO
*8***189	ITSASO	MENDIZABAL	CORCHON
*887*2**	IRUNE	PAGALDAI	ARDANZA
*282*6**	JANIRE	URALDE	SANCHEZ
*245***0	AMETS	URKIRI	LAZKANO

BAZTERTUTAKOEN ZERRENDA

—Ez dago bat ere.

Bigarrena: Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, LEP-aren iragarkien taulan eta aplikazioan. Bertara, helbide honen bidez sar daiteke: <https://opevmm.bilbao.eus> edo Organismoaren webgunearen bidez.

Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiek deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituztenik. Halaber, deialdia arautzen duten oinarrietan adierazitakoa aintzat hartuta, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.2 artikuluan eta martxoaren 10eko 364/1998 Errege Dekretuaren 23.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, prozesuaren edozein momentutan Epaimahaiak jakingo balu izangairen bat ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, izangai prozesutik kanpo geratuko da (hori baino lehen, entzunaldia emango zaio interesdunari). Hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari egun horretan bertan emango zaio ez-betetzearen berri, eta, ondorioz, horri lotutako jarduerak ondorioz gabe geratuko dira, baita prozesua gaunditu bada ere, hargatik eragotzi gabe parte-hartzeko eskaera faltsutzeagatik izan dezakeen erantzukizuna.

Hirugarrena: Ebazpenaren aurkako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hura eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan ere zuzenean aurkaratu ahal izango da, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik



zenbatzen hasita; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Bilbon, 2023ko maiatzaren 19an.—Zuzendari Nagusia, Eider Bilbao Aldayturriaga